

## 1.2. Elkarbizitza Plana egiteko jarraitutako prozesuaren deskribapena

Gure Elkarbizitza Plana egiteko jarraitu dugun prozesua honako hau da:

**1° Sentsibilizazio-fasea.** 2012-2013 ikasturteko lehen hiruhilekoan zehar, ikasleekin ( 2 tutoretza-saiotan aztertu zen gaia), irakasleekin (klastroak bi bilera egin zituen, Berritzeguneko erreferentziazko pertsonak parte hartu zuelarik), familiekin (aditu bat ekarri zen solasaldi bat emateko) eta irakasleak ez diren langileekin (familiekin egindako solasaldira eta klastroaren bileretara gonbidatuak izan ziren).

**2° Diagnosi-fasea.** Ikasturte bereko bigarren hiruhilekoan lehen aipatutako talde bakoitzari galdeketa bat eman zitzaion. Galdeketaren emaitzak hirugarren hiruhilekoaren hasieran jakinarazi ziren. Ikusi galdeketa eta emaitza-taulen ereduak plan honen eranskinetan.

### 3° Helburuen zehaztapena eta jardueren plangintza

Hirugarren hiruhilekoan, talde bakoitzak helburu-zerrenda bat osatu zuen, lehentasun hurrenkeraz ordenatua, eta gero lantalde misto bat eratu zen (irakaslea/ikaslea/aita/ama-irakasle ez den langilea), Elkarbizitza Planeko helburu orokorrak aukeratu eta lehenesteko, ondoren gauzatu beharreko ekintzak, haien epekatzea, zehaztapenak, bakoitzaren arduradunak etab. planifikatzeko.

Prozesuan zehar hainbat lantalde eratu ziren: a) Irakasle-taldea, tutoreek osatua. b) Ikasle-taldea, ordezkariak osatua, c) Guraso-taldea , hiru aita eta hiru amek ostua, d) Irakasleak ez diren langileak, lau lagunek osatua, e) Talde mistoa, hamar lagunek osatua; f) Elkarbizitza Plana idatzi eta ezagutzera emateko taldea, lau lagunek osatua. Talde bakoitzaren partaidetza- eta inplikazio-maila izan zen [oso ona/txikia/aldakorra].

Lan-saioen dinamikaren ezaugarri nagusia testu baten, galdeketa baten edo inkestean bidez jasotako datuen estatistikei buruzko hausnarketa izan [talde txikian/handian]. Adostasunera iristeko dinamikak erabili ziren: [talde nominalaren teknika / 1-2-4-8 /...]. Halaber, Planari erakarpen bateratuak egiteko moduei buruzko akordioak bildu ziren. Diagnosi-fasean galdeketak erabili ditugu familia, irakasle, ikasle eta (AZL) administrazio eta zerbitzuetako langileen ekarpenak eta datu kuantitatiboak biltzeko.

Lantalde bakoitzarentzat berariazko prestakuntza-saioak eta hezkuntza komunitate osoari zuzenduriko mahai-inguru bat antolatu dira.

Prozesu osoan zehar arrakasta gehien izan duten jarduerak hauek izan dira :

- Hezkuntza-komunitatearen partaidetza handia, proposaturiko galdeketei erantzutean. (ehunekoak estamentuka zehatz daitezke ).
- Inkestean bidez jasotako datuei buruz lantaldeek eginiko hausnarketa.
- Erabakiak batera hartzea, hala nola, helburuen lehentasuna ezartzean / jarduerak proposatzean... talde mistoan.
- Berariazko tutoretza-saioetan lortutako ikasleen sentsibilizazioa eta inplikazioa.

- Prestakuntza-saioak, [...] emanak.
- Elkarbizitza positiboari buruz, hezkuntza-komunitatean sorturiko giroa.
- Lantaldeetan erabaki adostuak hartzera iritsi izana.
- [...]

Lehentasunezko gaitzat hartu zirenak hauek dira:

- Gatazken hezkuntza-kudeaketa.
- Hezkuntza-komunitateak ikastetxeko bizitzan parte hartzeko bideak .
- Genero-berdintasuna eta aniztasun afektibo-sexualarekiko errespetua, elkarbizitza positiborako giltzarriak.
- Emozioen kudeaketa.
- Elkarbizitza positiboaren aldeko proposamen didaktikoak.
- [...]

OOGk Elkarbizitza Plana onartu du, uuuu/hh/ee/(e)an.

Ezagutzera emateko honako jarduera hauek antolatu dira:

- Ikastetxeko webgunean jarri da.
- Webgune berean iradokizunen postontzia jarri da.
- Guraso-elkarteari aurkeztu zaio, uuuu/hh/ee/(e)an.
- Ikasle ordezkarien batzordean landu da, uuuu/hh/ee/(e)an.
- Ikastetxeko talde guztietan landu da, tutoretza-saio batean.
- Ikasturte-hasierako bileran familiei aurkeztu zaie.
- Eskolako agendan helburuen laburpena sartu da.
- Ikastetxeko iragarki-tauletan dokumentuaren laburpen bat jarri da.
- Dokumentuaren kopia bidali zaie [ikastetxeko ikuskariari/prestaketa-prozesuan parte hartu duen zonaldeko berritzeguneko erreferentziazko pertsonari/ eta abarri].